

Euskaraz argitaratzeko edo ez argitaratzeko arrazoiak: Gizarte Zientzietako ikertzaileen kasua

Nahia Idoiaga Mondragon, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Mari Mar Boillos Pereira
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU

Lan akademikoak ahalik eta irakurle gehienengana iristeko ikertzaileen grinak ingelesa esparru akademikoko *lingua franca* bihurtzea ekarri du. Era berean, hizkuntza gutxituek presentzia txikia daukate nazioarteko aldizkari ospetsuetan. Testu-guru horretan, azterlan honen helburua da jakitea zerk bultzatzen dituen Gizarte Zientzien arloko euskal ikertzaileak beren artikulua euskaraz argitaratzera edo ez argitaratzera. Azterketan, arloko 131 ikertzailearen iritzien azterketa lexikoa egin da Reinert metodoaren bidez. Emaitzek erakusten dutenez, ikertzaileek hizkuntza nagusiak aukeratzen dituzte beren ibilbide profesionalean errekonozimendu eta inpaktu handiagoa lortzeko. Aitzitik, ezagutza euskaraz ere zabaltzek duen garrantziaren jakitun, askok euskaraz argitaratzen dituzte beren lanak. Militantzia eta ikertutako gaien izaera ere funtsezkoak dira erabaki horretan. Emaitzen arabera, beharrezkoa da hizkuntza gutxituek ezagutzaren hedapenean daukaten pisua indartzea.

GAKO-HITZAK: Diskurtso akademikoa · Hizkuntza gutxiak · Komunikazio zientifikoa · Lexikoaren azterketa · Reinert metodoa.

Reasons for publication or not in Basque: the case of Social Science researchers

The desire of researchers to reach the widest possible audience has made English the *lingua franca* of the academic world. At the same time, minority languages have a limited presence in prestigious international journals. In this context, this study aims to understand what motivates Basque social science researchers to publish—or not publish—their articles in Basque. The study conducted a lexical analysis of the opinions of 131 researchers using the Reinert method. The results show that researchers choose dominant languages to gain greater recognition and impact in their professional careers. However, aware of the importance of promoting knowledge in Basque, many also publish their work in this language. Militancy and the nature of the research topics are also key factors in this decision. The findings suggest that strengthening the role of minority languages in disseminating knowledge is essential.

KEY WORDS: Academic Discourse · Minority Languages · Scientific Communication · Lexical Analysis · Reinert Method.

<https://doi.org/10.26876/uztaro.5110>

Jasotze-data: 2024-05-29 Onartze-data: 2024-06-21

1. Sarrera

Ospe akademiko handiko aldizkarietako argitalpenek gero eta pisu handiagoa dute unibertsitate-eremuko ikertzaile-irakasleen ibilbideetan (Koller & Thompson, 2021). Kalitate-agentziek azpimarratzen dute garrantzitsua dela nazioarteko publikoarengan eragina duten lanak argitaratzea eta aipu kopuru esanguratsua lortzea. Nazioartekotzeko gogo horren ondorioz, aldizkari ospetsuenek lanak ingelesez soilik argitaratzea erabaki dute, eta hedapen zientifikoaren *lingua franca* bihurtu da ingelesa (Mauranen, Hynnien, & Ranta, 2016). Horrela, bigarren maila batean geratu dira beste hizkuntza nagusi batzuk (espainiera, arabiera, frantsesa eta abar), eta hizkuntza gutxituen presentzia testigantzakoa baino ez da (Ammon, 2012).

Egoera horren aurrean, ikerlan honek Euskal Herriko Gizarte Zientzietako ikertzaileen errealitatea aztertu du, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko hiru unibertsitateena: Euskal Herriko Unibertsitatearena (UPV/EHU), Deustuko Unibertsitatearena (DU) eta Mondragon Unibertsitatearena (MU). Helburua da aztertzea ikertzaileek beren lan zientifikoak euskaraz argitaratzeko edo ez argitaratzeko dauzkaten arrazoiak. Horretarako, Iramuteq analisi lexikoa egiteko tresna erabili da, eta Reinert metodoa aplikatu da (metodologiaren atalean emango dira xehetasunak).

Lan honetan, hasteko, ingelesak beste hizkuntza batzuekin alderatuta hedapen zientifikorako hizkuntza gisa izan duen bilakaeraren berrikuspena aurkezten da. Ondoren, azterlanaren metodologia zehazten da eta datuak biltzeko eta aztertzeko prozedura azaltzen da. Bukatzeko, lan honen emaitzei esker, euskara hizkuntza akademiko gisa indartzeko zer urrats egin daitezkeen eztabaidatu eta hausnartu daiteke.

2. Marko teorikoa

Onartu berri den Unibertsitate Sistemaren 2/2023 Lege Organikoaren arabera, unibertsitate-sistemaren eginkizunen artean dago jakintza sortzea, garatzea, hedatzea, transferitzea eta trukitzea, jakintzaren arlo guztietan aplikatu ahal izateko. Era berean, lege horren IV. tituluan azpimarratzen da unibertsitateek sustatu egin behar dituztela unibertsitatean egiten den ikerketaren eta behar sozialen arteko harremanak, eta, aldi berean, ekimenak bultzatu behar dituztela ikerketetan lortutako emaitzak jendartean partekatzeko, bai komunitate zientifikoaren artean difusioa eginez eta bai jendarte zabalean dibulgazioa eginez:

Las universidades promocionarán las relaciones entre la investigación universitaria, las necesidades sociales y culturales y su articulación con el sistema productivo, atendiendo especialmente a la estructura social y económica del territorio en que están implantadas. A su vez, impulsarán iniciativas para compartir, difundir y divulgar los resultados de la investigación al conjunto de la sociedad (2/2023 Lege Organikoa, IV. titulua, 11. artikulua, 21. or.).

Jarduera-ildo horiek, unibertsitateetan ikerketa kudeatzeko moduak zehazteaz gain, indartu egiten dute komunitate akademikoaren helburua, ezagutza eraldatzea ez ezik, ahalik eta hartzaile gehienei zabaltzea ere badela (Lillis & Curry, 2010).

Horren ondorioz, Björk *et al.*ek (2009) dagoeneko duela hamarkada bat baino lehenago adierazi zutenez, azken hamarkadetan, ezagutzaren industria bat sortu da, non mundu osoko ikertzaileek 1,4 milioi artikulu baino gehiago ekoizten baitituzte urtean.

Argitalpenek, artikulu zientifikoek bereziki, ikertzaileen kalitate zientifikoa neurtzeko tresna gisa balio dute. Ikertzaile baten karrera profesionala eta nazioarteko estatusa ikertzaile horrek argitaratutako lanek duten eraginaren arabera dira. Artikulu horiek ebaluazio-irizpide dira hautaketa-prozesuetan, soldata-igoeretan edo ordainsari-osagarrietan eta karrera akademikoko ibilbidean (Koller & Thompson, 2021).

Ondorioz, ikertzaileentzat berebiziko garrantzia dauka prestigiozko aldizkari gisa katalogatuta dauden aldizkarietan argitaratzeak. Prestigioa tresna bibliografikoetan oinarrituta neurtzen da, eta tresna horiek argitalpenen hedapen-maila eta jasotzen duten aipu kopurua kalkulatu dituzte. Prestigiorik handienekotzat hartzen diren aldizkariak Web of Sciences eta Scopus aldizkarietako datu-baseetan sartzen dira, eta gehienak ingelesezko argitalpenak bakarrik onartzen dituzten aldizkariak dira. Eskakizun horiek, gainera, izen handiko aldizkari guztiek dituzte, jakintza-arloa edozein dela ere. Horrela, baldintza berberak aurki daitezke Natur Zientzietako eta Gizarte Zientzietako aldizkarietan (López-Navarro *et al.*, 2015).

Estandarizazio horren ondorioz, hizkuntza gutxituen presentzia oso baxua da Web of Science eta Scopus datu-baseetan agertzen diren aldizkarietan (Koller & Thompson, 2021), eta, are gehiago, hizkuntza horietan argitaratuta dauden lanak aipatzerik ere ez dagoela iradokitzen hasi dira (Doerr, 2021). Egoera hori dela medio, ikertzaileek beren lehen hizkuntzak alde batera utzi eta ingelesa komunikazio-hizkuntza akademiko gisa erabiltzea erabaki dute. Aipatzekoa da, Gizarte Zientzien arloan, hori gertatzen dela gutxiengoaren hizkuntza- eta kultura-errealitateen inguruan egiten diren lanetan ere, hau da, Gizarte Zientzien eremuan egiten diren ikerketa asko gizarte hobetzeko helburuz egiten dira, baina ikerketa horien emaitzak ingelesez argitaratzen dira eta sarritan ingelesa ez da izaten ikertu den jendarte horrek menderatzen duen hizkuntza (Linkov *et al.*, 2021).

Horren harira, ingelesa lehen hizkuntza daukatenek izan ditzaketen abantaila eta lehen hizkuntza gisa beste hizkuntza bat daukatenek izan ditzaketen erronkei buruzko eztabaidak ere piztu izan dira; besteak beste, English for Research Publication Purposes (ERPP) delakoaren barruan kokatutako ika-mika. Jarrera eztabaidagarrietako bat Hylanden eskutik etorri zen (2016), idazkera akademiko ingeles hiztun diren ikertzaileentzat ere erronka bat dela eta, beraz, injustizia linguistikoa mito bat dela esan baitzuen. Erantzuna berehala iritsi zen, eta zenbait egilek, hala nola Flowerdew-ek (2019), jarrera hori erabat baztertu zuten. Autore horren esanetan, testu zientifiko bat ingelesez idaztean natiboek eta ez-natiboek zailtasunak badituzte ere, erronka handiagoa da natiboak ez direnentzat.

Ebidentzia bat da, gaur egun, ingelesez argitaratzen duten ikertzaile ez-natibo gehiago daudela jatorrizko ingeles hiztunak diren ikertzaileak baino. Hala ere, jarraitu beharreko estandarrak eta argitasun- eta ulergarritasun-irizpideak aztertzaile,

zuzentzaile eta editore natiboek zehazten dituzte oraindik (Hynninen eta Kuteeva, 2017). Izan ere, Ganter eta Ortégak (2019) zenbait komunitateren ikusezintasuna diagnostikatu dute argitalpen zientifikoaren munduan. Datuek erakusten dutenez, Afrikako eta Latinoamerikako komunitateak Europa mendebaldeko aldizkari ospetsuen kontseilu editorialetan duen ordezkartzaren % 0,5 baino ez du hartzen.

Egoera horren aurrean, hainbat mugimenduk baztertu egiten dute ingelesa *lingua franca* gisa sendotzea, eta beste hizkuntza batzuen erabilera legitimatzearen alde egiten dute, ezagutzaren nazioz gaindiko trukea lortzeko. Navarro *et al.*ek (2022) manifestu bat argitaratu dute, eta bertan azpimarratzen dute hizkuntza nagusi bat erabiltzeak ez duela inklusioa sustatzen, baizik eta diskriminazioa ekar dezakeela eta sortzen den ezagutza garrantzitsuena ingelesez sortzen den ideia indartu. *Helsinki Initiative on Multilingualism in Scholarly communication* ekimenak ere gauza bera aldarrikatzen du (Federation of Finnish Learned Societies, 2019).

Vila-k (2021, 66. or.) *diglosia zientifiko* adiera darabil, «suggesting that English is becoming the high language of science whereas the rest of languages are losing prestige and are progressively perceived as not suitable for scholarly purposes». Eta, besteak beste, argudiatzen du jarduera akademikoa argitalpen zientifikoetara mugatzea oso ikuspuntu murriztailea dela, *pars pro toto* sinekdoke baten parekoa, jarduera akademikoan, argitalpen zientifikoek gain, ezagutzaren ekoizpena, zirkulazioa, kudeaketa eta irakaskuntza ere gauzatzen baitira.

Navarro *et al.*ek (2022) uste dute lan zientifiko bat argitaratzeko hizkuntza aukeratzeak eskubide soziolinguistikoa izan beharko lukeela, hizkuntza aukeratzea ekintza politikoa den heinean. Aniztasunarekiko errespetua bultzatzen du proposatzen duten ikuspegi-aldaketak.

Idea horrekin bat dator Doerr (2021). Bere lanean ondorioztatzen duenez, ingelesaren erabilera globalizatuak hizkuntza-ikuspegiak galtzea dakar, baina komunikazio-askatasuna ere kaltetzen du, kulturen arteko komunikazioa mugatzen du eta zientzia komunitatera iristea saihesten du, komunitate askotako hizkuntza ez baita ingelesa. Berak dioenez, ikerkuntzarako eta irakaskuntzarako hizkuntza ingelesa izatera mugatzea ekonomiaren baitako logikei jarraitzea litzateke, hau da, hizkuntza-hautuak egiteko arrazoi instrumental eta algoritmikoei jarraitzea. Eta, gogoratu behar da, unibertsitateen lege berriaren arabera, lehentasunezko helburuetako bat dela unibertsitatean sortzen den ezagutza gizartera irits dadin sustatzea.

Ildo beretik, Suzinak (2021) natiboak ez diren ikertzaileen ibilbide profesionala mugatzen duen arazo estruktural bati irtenbidea aurkitzearen alde egiten du: «We need to embrace language as carriers of culture and take the flavours of different accents as part of the content, as signals of the perspective these authors are trying to express» (178. or.).

Martinek (2021) interseksionalitateak planteatu du konponbidea. Autore horrek argudiatzen du diskriminazioa ez dela arrazoi linguistiko batengatik bakarrik sortzen: «Linguistic requirements become an example of intersectionality, where

social and economic differences are inseparable from linguistic ones, reinforcing the social stratification of the academic field» (Martin, 2021, 174. or.). Block-en (2018) arabera, ikerketa akademikoaren instrumentalizazioa ekarri du neoliberalismoak. Hala, Dołowy-Rybińska-ren (2021) iritziz, agerian gelditzen da eremu akademikoan gertatzen den desberdintasuna. Beste posizio soziolinguistiko, kultural eta geografiko batzuetatik datozen akademiko askok erronka handiagoei aurre egin beharko diete erreferentziazko komunitate diskurtsiboetan sartzeko eta komunitate horietako partaide legitimoztat hartuak izan daitezen (Soler, 2021).

Erpin asko dauzkan eztabaida da mahai gainean dagoena. Ezagutza zientifikoa ahalik eta gehien zabaldu nahi da, hizkuntza-komunitate bakoitzaren mugak gaindituz, askotan hizkuntza-komunitate horien biziraupena bera jokoan dagoen arren. Nazioarteko komunitate zientifikoak hizkuntza-komunitate ugari biltzen ditu, baina beren artean komunikatzeko hizkuntza ingelesa bihurtu da, gainerako hizkuntzak itzalean utziz. Badira horri kritika egiten dioten ikertzaileak, baina, gaur-gaurkoz, ibilbide akademikoan aurrera egin nahi duenak ezinbestekoa du ingelesez argitaratzea. Horren guztiaren aurrean euskal komunitate zientifikoak zer iritzi daukan eta nola jokatzeko duen azalduko da lan honetan.

3. Metodologia

Ikerketa hau euskara hizkuntza zientifiko gisa aztertzen duen ikerketa zabalago baten parte da. Zehazki, artikulu honek Gizarte Zientzietako euskal ikertzaileek euskaraz argitaratzea edo ez argitaratzea zergatik erabakitzen duten aztertzea izango du helburu. Jarraian, datuak biltzeko prozesua eta datu-analisirako metodologia azalduko dira.

3.1. Lagina eta datu-bilketa prozesua

Euskal Autonomia Erkidegoko goi-mailako irakaskuntzako erakundeetako 131 ikertzailek hartu dute parte ikerketa honetan. Horietatik % 12,21ek (n = 16) lan-harremana dute Deustuko Unibertsitatearekin, % 8,39k (n = 11) Mondragon Unibertsitatearekin eta % 79,38k (n = 104) Euskal Herriko Unibertsitatearekin. Parte-hartzaileen lehen hizkuntzei dagokienez, % 50,38rentzat euskara da lehen hizkuntza, % 17,55entzat euskara eta gaztelania eta % 31,30entzat, gaztelania. Halaber, parte-hartzaileen % 72,5ek artikuluren bat euskaraz publikatu dute noizbait.

Datuak biltzeko inkesta bat betearazi zitzaizen parte-hartzaileei (inkesta sortzeko erabili zen programak datuen anonimotasuna bermatzen du). Galde-sortak bi atal zeuzkan. Lehenengo atalean galdera soziodemografikoak eta pertsonalak egin ziren; bigarrenagoa galdera ireki batek osatzen zuen: «Zergatik erabakitzen duzu lan akademikoak euskaraz argitaratzea edo ez argitaratzea?».

Galdetegia posta elektronikoz banatu zen 2022ko martxoan. Parte-hartzaileei ikerketaren xehetasunen berri eman zitzaizen une oro, eta haien parte-hartzea borondatezkoa izan zen.

3.2. Datu-analirako metodologia

Bildutako datuen analisi lexikala gauzatzeko Reinert metodoan oinarritutako Iramuteq softwarea erabili da (Reinert, 1983; 1990), horrela testu-analisetan ikertzaileen interpretazioaren subjektibotasunari egotzi ohi zaizkion fidagarritasun-eta baliozkotasun-arazoak ekiditeko (Klein eta Likata, 2003; Reinert, 1996). Software horren helburu nagusia da testu bat kuantifikatu eta haren egitura garrantzitsuenak azaleratzea, horrela, testu-datuetakoinformazio oinarritzkoena baliatzen da. Egitura horiek hitzek testuan duten banaketarekin zuzenki lotuta daudela frogatu da (Reinert, 1996), banaketa hori ia inoiz zorizkoa ez delarik. Deskribatzea, sailkatzea, asimilatzea edota testu bat automatikoki sintetizatzea dira Iramuteq-en interes nagusiak.

Softwareak egindako analisiaren lehenengo urratsa corpora testuinguruko oinarritzko unitateetan (Elementary Contextual Units, ECU) banatzea da, zeinak esaldi batez edo biz osatuta dauden (30-50 hitz inguru) (Kronberger eta Wagner, 2000). ECUak eta hitz-erroak gurutzatu egin dira kontingentzia-taula bat sortzeko, zeinak hiztegiaren banaketa azalduko duen ECUekiko. Kontingentzia-taula horretatik abiatuta, distantzia karratuen matrize bat sortzen da, non bi ECU hurbilekoak izango diren, aztertutako hitzen bat partekatzen badute (Klein eta Licata, 2003; Reinert, 1996). Ondoren, kluster analisi hierarkiko beherakor bat egiten du Iramuteq-ek aipaturiko distantzia karratuen matrizearekin, testuan batera errepikatu diren hitzak klaseetan multzokatua.

Reinert metodoarekin egindako beste ikerketa batzuetan bezala (Idoiaga eta Belasko, 2019; Legorburu *et al.*, 2023), klase bakoitzeko hitz garrantzitsuenak hiru irizpideren bidez sailkatu dira: 1) hitzaren errepikakortasunaren maiztasuna klasean bertan 5 baino handiagoa izatea; 2) khi karratuaren asoziazio-probaren balioa klasearekiko $\chi^2(1) \geq 3.89$ ($p = .05$) baino handiagoa izatea; eta 3) hitz horren % 50 edo gehiago klase horri egokitu izana.

Unibertso lexiko horiek identifikatu ondoren, aldagai pasiboekin lotu dira (aldagai independenteak). Kasu honetan, aldagai pasiboak honako hauek izan dira: artikulu zientifikoak euskaraz argitaratu izana (bai/ez), kalitate altuko argitalpenen kopurua (5 baino gutxiago / 5 eta 10 artean / 10 edo gehiago), lehen hizkuntza (euskara / gaztelania / euskara eta gaztelania / beste), Unibertsitatea (UPV/EHU / DU / MU), jaiotze-hamarkada, euskara-maila (A1 / A2 / B1 / B2 / C1 / C2), ingeles-maila (A1 / A2 / B1 / B2 / C1 / C2) eta gustura sentitzea artikulu zientifikoak euskaraz idazten (bai/ez) nahiz irakurtzen (bai/ez). Bukaeran, softwareak «klase» edo «ideia nagusi» ezberdinak erdietsiko ditu. Klase horietako bakoitza hitz tipikoz (hau da, klase horri lotutako khi karratu altueneko hitzez) eta testu-segmentuz (aipuak) osatuta egongo da (aipamen bakoitzaren khi karratuaren balio totala klaseari buruzko aipamen horretako hitz bakoitzaren khi karratuen balioen baturarekin kalkulatzeko). Horrek klaseak mundu lexiko gisa interpretatzeko oinarria ematen du.

Reinert metodoak datu estatistikoak, gardenak eta erreproduzitzeko modukoak sortzen ditu interpretazioaren azken punturaino, analistak etiketa bat esleitzen duen punturaino. Azken fase horretan, klase bakoitzeko etiketak edo izenburuak

sortzeko, ikerketa honetan prozesu sistematiko bat gauzatu da. Prozesu horretan, ikertzaileetako bik klase bakoitza modu independentean izendatu dute, klase horretako hitz eta testu-segmentuetan oinarrituta. Hau da, klase bakoitza osatzen duten hitzak eta klase horri khi karratu altuenekin lotzen zaizkion esaldiak irakurri ostean klasea izendatzeko proposamen bat egiten du bakoitzak. Hirugarren ikertzaileak, beste bien proposamenetan oinarrituta azken izenburu bat sortu du klase bakoitzarentzat, eta hiru ikertzaileek onartu dute.


4. Emaitzak

Corpus osoak 9.915 hitz ditu, horietatik 1.245 hitz bakarrak dira. Azterketari esker, parte-hartzaileek euskarazko artikulua argitaratzeko edo ez argitaratzeko izan dituzten arrazoi nagusiak identifikatu ahal izan dira. Arrazoi edo argumentu bakoitza *klase* izeneko hitz eta testu-segmentu tipikoen multzo batean biltzen da. Zehazki, beheranzko analisi hierarkikoak 259 segmentu eta 6 klasetan banatu du corpusa. Emaitzen atal honetan erakusten diren adibideak klase bakoitzaren baitako aipurik esanguratsuenak dira, hau da, khi karratu altuena dutenen artean argigarrienak.

Klase horietako hiru euskaraz ez argitaratzeko argudioei buruzkoak dira, eta honako izen hauek ezarri zaizkie: «Euskara ikerketa-errekonozimendutik kanpo», «Euskara ez da ikerketa-eremuko komunikazio-hizkuntza» eta «Beste hizkuntzetan inpaktu altuagoa». Beste hiru klaseek, berriz, euskarazko lanak argitaratzeko argudioak plazaratu dituzte: «Zientzia euskaraz eskaintzeko beharra», «Militantzia, beharrezkoa da euskal komunitate zientifikoa osatzea» eta «Nire ikergaia da edo lotura du berarekin». Azterketa horren emaitzak 1. irudian ikus daitezke.

Lan akademikoak euskaraz ez argitaratzeko lehenengo arrazoiak euskarak eremu akademikoan falta duen aintzatespenari egiten dio erreferentzia (1. klasea). Ikertzaileek errekonozimendu akademikoa lortzeko ezinbestekoa dugu inpaktu altuko aldizkarietan argitaratzea, baina oso aukera gutxi dago maila horretako argitalpenak euskaraz egin ahal izateko. Erantzun guztien artean % 17,17ko pisua izan du klase horrek, eta bereziki euskaraz argitaratzen ez duten ikertzaileek ($p < 0,0001$), kalitate altuko 5 argitalpen baino gutxiago dauzkatenek ($p < 0,01$) eta ingeles-maila B1 edo B2 dutenek ($p < 0,05$) aipatu dute. Hona hemen klase horren baitako zenbait aipu:

- Euskarazko aldizkari akademikorik ez dagoenez, beste hizkuntza batzuetako aldizkarietara jo dut, eta euskarazko aldizkariak gero eta kalitate-indize txikiagoa dute. ($\text{Khi}^2 = 90,48$; Ez du euskaraz publikatu, UPV/EHU)
- Akreditazioari begira, kalitatezko aldizkari gutxiago daudelako. ($\text{Khi}^2 = 78,11$; Ez du euskaraz publikatu, MU)
- Kalitate-indize handiena duten aldizkariak, gure eremuan behintzat, erdal-dunak dira; hala ere, lan handia egin dute *Uztaro* bezalako batzuk ranking handietan egon daitezzen. ($\text{Khi}^2 = 73,00$; Ez du euskaraz publikatu, UPV/EHU)



1. irudia. Ikeritzaileen erantzunen corpusaren beharrezko taldekatze hierarkikoaren dendrograma asoziazio handiena duten hitzekin Khi² (1), p < 0,001, Reinert metodoaren bidez ateratakoak (Iturria: sorkuntza propioa).

Ikertzaileek beren lanak euskaraz ez argitaratzeko bigarren arrazoitzat esan dute euskara ez dela beren lan-esparruko komunikazio-hizkuntza (2. klasea), ez beren lankideekin komunikatzeko eta ez beren ikergaiari buruz idazteko. Argudio honek % 13,13ko pisua eduki du, eta bereziki inoiz artikulurik euskaraz argitaratu ez dutenek ($p < 0,001$), 1950eko hamarkadan jaiotakoek ($p < 0,001$) eta ikertzaile iraunkorrek aipatu dute ($p < 0,001$). Jarraian arrazoi hori aipatzen duten zenbait adierazpen:

- Euskara aldizkarien hizkuntza-politikatik kanpo geratzen delako, aldizkariak euskal hizkuntzaz besteko lanak eskatzen dituztelako eta nire ikerketa-kideek euskaraz ez dakitelako eta nire ikerketa-edukiak euskaraz ez daudelako. ($Khi^2 = 133,90$; Ez du euskaraz publikatu, MU)
- Egungo gizarteko ikertzaileok artikulua argitaratu behar ditugu gure lan-postua sendotzeko. Gainera, ikerketa-taldeen dinamika nagusia gaztelaniaz lan egitea eta argitaratzea da. ($Khi^2 = 112,90$; Ez du euskaraz publikatu, UPV/EHU)
- Euskaraz ez dakiten lankideekin egindako argitalpenetan, lana hizkuntza horietan argitaratzeko ohitura dut: ingelesez edo gaztelaniaz. Hau da, lan-hizkuntzaren edo lantaldean erabilitako hizkuntzaren arabera. ($Khi^2 = 112,49$; Ez du euskaraz publikatu, DU)

Hizkuntza hegemonikoetan argitaratuta inpaktu altuagoa lortzea da euskaraz ez argitaratzeko hirugarren arrazoia (3. klasea). Kalitate altuko aldizkari zientifikoetan argitaratuta lortzen ditugu ikertzaileok gure ibilbide akademikoan aurrera egiteko merezimenduak, baina aldizkari horietako gehienek ingelesez argitaratzen dute. Ideia honek argudioen % 17,68 biltzen ditu eta bereziki euskaraz artikulurik idatzi ez dutenek ($p < 0,001$) eta euskaraz idazten eroso ez daudenek ($p < 0,0001$) aipatu dute. Ondorengo lerroetan irakur daitezke argudio hori aipatzeko zenbait ikertzailek erabilitako hitzak:

- Erosoago sentitzen naizelako gaztelaniaz idazten eta, gainera, euskal aldizkari zientifikoek ez dutelako eragin handirik. ($Khi^2 = 145,47$; Ez du euskaraz publikatu, UPV/EHU)
- Eragin handiagoa duten aldizkarietarako sarbidea (q_1 , q_2) errazagoa da beste hizkuntzetan. Gainera, errazagoa da niretzat gaztelaniaz idaztea, eta normalean ez dut dirurik izaten itzulpenerako edo berrikuspenerako. ($Khi^2 = 144,88$; Ez du euskaraz publikatu, UPV/EHU)
- Eragin handiko aldizkarietan argitaratzen dugunok curriculum akademikoak bultzatu behar ditugu; beraz, argitalpenak ingelesez idaztera behartuta gaude nolabait. ($Khi^2 = 136,01$; Ez du euskaraz publikatu, UPV/EHU)

Bestalde, euskaraz argitaratzeko arrazoiei dagokienez, beste hiru argudio plaza-ratu dituzte parte-hartzaileek. Lehenik, zientzia euskaraz ekoizteko beharra dutela adierazi dute argudioen % 23,23an ikertzaileek (4. klasea). Euskararen normalizazioa lortzera bidean eman beharreko urrats gisa ikusten dute euskara alor horretan ere erabiltzea. Ideia hau bereziki gehiago aipatu dute euskaraz publikatzen duten

ikertzaileek ($p < 0,0001$) eta guztira 1 eta 10 artikulua zientifiko artean argitaratuta dituztenek ($p < 0,001$). Parte-hartzaileek ideia hori adierazteko esandakoak segidan agertzen dira:

- Maila akademikoan ezinbestekoa iruditzen zait ezagutza maila pertsonalean gure hizkuntzaren bidez garatzea, gure herriaren garapen sozial eta kulturarekiko konpromisoagatik. ($\text{Khi}^2 = 122,14$; Euskaraz publikatu du, MU)
- Unibertsitateak merezimendutzat hartzen du euskal argitalpena, ez daukat oso argi, baina irakaskuntza-enkargua ere murriztu daiteke. Euskaraz argitaratzea ezinbestekoa iruditzen zait euskal komunitateari euskal eta Euskal Herriko gaiak ere maila zientifikoan eskaintzeko. ($\text{Khi}^2 = 120,88$; Euskaraz publikatu du, UPV/EHU)
- Nire hizkuntza delako eta hizkuntza honetan sinesten dudalako. Gainera, komunitate euskaldunak artikulua zientifikoak behar dituelako bere hizkuntzan, ezagutza transferitzeko ezinbestekoa delako euskaraz sortzea, gure hizkuntza osoa izan dadin. ($\text{Khi}^2 = 105,46$; Euskaraz publikatu du, UPV/EHU)

Euskaraz argitaratzeko bigarren argudioak % 14,65eko pisua du, eta bere baitan militantziari egiten diote erreferentzia ikertzaileek (5. klasea). Erantzukizun pertsonaletik, euskal komunitate zientifikoa osatzearen alde mintzo dira. Ideia hau bereziki gehiago aipatu dute euskaraz argitaratzen duten ikertzaileek ($p < 0,0001$) eta euskaraz 16 artikulua baino gehiago argitaratutakoek ($p < 0,001$). Honela eman dituzte azalpenak ikerketa honetako parte-hartzaileek:

- Militantziagatik, euskaldunak eremu guztietan gainerako hizkuntzen balio bera duela erakusteagatik. Hau da, haren sustapenean laguntzeagatik, normalizazioari egiten diodan ekarpenagatik. ($\text{Khi}^2 = 133,90$; Euskaraz publikatu du, UPV/EHU)
- Uste dudalako garrantzitsua dela zientzia euskaraz egitea euskal komunitateari ekarpen bat egiteko, baita militantziagatik gure hizkuntzan argitaratzea ere beharrezkoa dela uste dudalako. ($\text{Khi}^2 = 112,90$ Euskaraz publikatu du, UPV/EHU)
- Alde batetik, euskaraz bizi naizelako eta euskaraz idazten eta sortzen eroso sentitzen naizelako. Horretan sinesten dudalako. Beharrezkoa dela uste dudalako euskal komunitate zientifikoari laguntzeko. ($\text{Khi}^2 = 100,74$; Euskaraz publikatu du, UPV/EHU)

Azkenik, euskaraz argitaratzeko arrazoen artean azkena izan da euskara bera ikertzaileen ikerketa dela edo berarekin lotura duela (6. klasea), % 14,14ko pisuarekin. Argudio hau bereziki gehiago aipatu dute euskaraz publikatzen duten ikertzaileek ($p < 0,0001$), euskaraz idazten eroso sentitzen direnek ($p < 0,05$) eta kalitate altuko 5-15 argitalpen artean dauzkatenek ($p < 0,01$). Hauek izan dira ikerketa honetako parte-hartzaileek esandakoak:

- Euskaraz argitaratzen dut, nire ikergaia euskal literatura delako eta irakurleak ezagutza-eremu hurbila duelako. ($\text{Khi}^2 = 137,87$; Euskaraz publikatu du, UPV/EHU)
- Irakurlerik egokienak euskaldunak izango direlakoan, ikerketaren gaia Euskal Herriarekin lotuta baitago. ($\text{Khi}^2 = 121,757$; Euskaraz publikatu du, UPV/EHU)
- Ikerketagatik, batez ere soziolinguistikaren arloan aritzen naizelako. ($\text{Khi}^2 = 97,22$; Euskaraz publikatu du, UPV/EHU)

5. Eztabaida eta ondorioak

Lan honen atal teorikoan ikusi dugunez, eremu akademikoan komunikatzeko hizkuntzekikoak kezka-iturri dira nazioartean. Difusio zientifikorako *lingua franca* bihurtu da ingelesa (Mauranen, Hunnien & Ranta, 2016) eta hizkuntza gutxituen presentzia testigantzazkoa baino ez da eremu horretan (Ammon, 2012; Koller & Thompson, 2021). Errealitate hori azaltzeko *diglosia zientifiko* adieraz baliatu da Vila (2021). Ikusi dugunez, gaiari garrantzia ematen zaio nazioarteko komunitate zientifikoan.

Kezka horrekin bat egiten dute ikerketa honetako parte-hartzaileek. Euskal komunitate zientifikoak euskaraz ez argitaratzeko dauzkan arrazoiak aztertuta, pisu gehieneko argudioen arteko bi bat datoz nazioartean piztu den kezkarekin: batetik, esaten dute euskarazko argitalpenek ez daukatela errekonozimendurik eremu akademikoan eta, bestetik, inpaktu akademikoa lortzeko ezinbestekoa dela hizkuntza hegemonikoetan idatzitako lanak argitaratzea. Bi modutara formulatuta, baina arrazoi berbera. Horren aurrean zerbait egiteari begira, ebaluazio-agentziek edo aldizkari zientifikoek baleukakete zer egina (Bereziartua & Boillos, 2022).

Bi horiez gain hirugarren argudio bat ere nabarmendu da: hain zuzen ere, euskara ez izatea beren ikerketa-eremuko komunikazio-hizkuntza, izan beren ikergaiari buruzko nazioarteko eztabaida beste hizkuntza batzuetan garatzen delako edo izan beren eremuko pertsonarteko harremanetan beste hizkuntza batzuk erabiltzen direlako. Ideia hori bera azaleratu dela ikusi dugu lan honen atal teorikoan, Gizarte Zientzien eremuan gutxiengoan hizkuntza- eta kultura-errealitateen inguruan egiten diren ikerketetan (Linkov *et al.*, 2021).

Euskaraz ez argitaratzeko adierazi diren argudioak multzokatzeko saiakera eginez gero, baliagarri suerta dakizkiguke bigarren hizkuntzaren jabekuntzaren eremuan motibazioaren jatorriari buruz erabiltzen diren adierak (Gardner & Lambert, 1972). Horrela, euskaraz ez argitaratzeko arrazoiak kanpo-motibazioaren edo motibazio instrumentalaren pean kokatu ahal izango genituzke, ibilbide akademikoan aurrera egin ahal izateko beharra islatzen baitute emandako argudio pragmatikoek.

Ibilbide akademikoan aurrera egiteko kezka hori ezaugarri propioz janzten da hizkuntza gutxitu baten testuinguruan. Edozein hizkuntzak dituen erronkez gain hizkuntzaren normalizazioa bera jokoan egoteak oztopoak gehituko baititu. Hau da,

hizkuntza bat erabat normalizatu gabe baldin badago, ez da harrizkoa hizkuntza horren erregistro akademikoa garatu gabe egotea; alegia, besteak beste, gertatu ohi da diziplina desberdinetarako terminologia teknikoa edo corpusa sortu gabe egotea, edo sortze-prozesuan egon arren, komunitate zientifikoaren artean errotu gabe egotea (Boillos eta Bereziartua, 2020). Hori zailtasun erantsi bat da guztiz normalizatu gabeko hizkuntzan zientziaren difusioa egin nahi duten ikertzaileentzat. Horrenbestez, lan honen atal teorikoan ikusi dugun bezala, ingelesez argitaratu beharrak ezartzen duen erronka handiagoa da hizkuntza horiekin jaino ez direnentzat (Flowerdew, 2019).

Halaber, interseksionalitatea jartzen du mahai gainean Martinek (2021) egoera honetan gertatzen diren diskriminazioei buruz jardutean. Dolowy-Rybińskak (2021) desberdintasun sozial eta ekonomikoak jartzen ditu linguistikoen ondoan. Gurea bezalako testuinguruetan, desberdintasun linguistikoen barnean ere geruza bat baino gehiago egon daitezke, eta eztabaida horretan kontuan hartu beharko litzateke hizkuntzaren biziraupena bermatuta ez egotea baldintzatzailea izan daitekeela.

Ingelesaren nagusitasuna gailendu den egoera honen aurrean jarrera kritikoa erakutsi dute zenbait ikertzailek, egoera horrek agerian uzten dituen injustiziez jabetuta. Suzinak (2021) eta Doerrek (2021) hizkuntzen eta hizkuntza horiek biltzen dituzten balioen aniztasunak nazioarteko komunitate zientifikoari eman diezaiokeen aberastasunean jartzen dute arretagunea. Navarro *et al.*ek (2022) diote eskubide soziolinguistikoa bat dela lan akademikoak argitaratu nahi ditugun hizkuntzan argitaratzeko aukera edukitzea eta aukeraketa hori ekintza politiko bat dela.

Ikerketa honetan euskal komunitate zientifikoak euskaraz argitaratzeko adierazi dituen arrazoiei erreparatzen badiegu, ildo horrekin bat egiten dutela ikusten dugu. Esan bezala, gure testuingurua hizkuntza gutxitu baten testuingurua da eta horrek erronkak areagotu egiten ditu. Hala ere, euskaraz argitaratzeko argudioei begira jarrita, hizkuntza baten biziraupena bermatzeko bakoitzak bere hondar-alea jartzeak daukan garrantzia barneratuta daukan komunitate erresiliente baten zantzuak ere ikusten dira lan honetan bildutako emaitzetan.

Berrito ere bigarren hizkuntzaren jabeakuntzaren alorrean motibazioaren jatorriari erreferentzia egiteko erabiltzen diren adieraz baliatuz, badirudi neurri handi batean barne-motibazioak edo motibazio integratzailea deitutakoak bultzatzen dituela euskal ikertzaileak euskaraz argitaratzera. Kasu honetan ere, nabarmendu diren hiru argudioen arteko bi zuzenki erlazionatuta daude elkarren artean: batetik, euskararen normalizazioan eta euskal kulturaren garapenean aurrera egiteko beharrezkoa ikusten da euskaraz argitaratzea; bestetik, norbanako gisa gutako bakoitzak egoera honetan daukan erantzukizunari erantzuten dio argitalpenak euskaraz egiteak. Berrito ere, arrazoi berbera bi modutara formulatuta.

Kasu honetan ere bada azaleratu den beste arrazoi bat euskaraz argitaratzeko: ikertzaileek aztertzen duten ikerketa euskara bera edo euskararekin lotura estua duen gairen bat izatea, hain zuzen ere. Horrekin lotuta, Linkov *et al.*ek (2021) zioten ohikoa dela gutxiengoen errealitate kultural eta linguistikoen gainean

egiten diren lanak hizkuntza hegemonikoan idatzi behar izatea. Gure kasuan ere gertatzen da hori eta ukaezina da hori egin daitekeela. Neurri batean, esan liteke ez dela hori aitzakia norberaren hizkuntzari edo kulturari buruzko gaiei buruz nazioarteko komunitatearekin eztabaidatzeko; alderantziz: egin liteke eta egiten da. Baina horrek ere badauzka bere ajeak. Norbere hizkuntzarekin edo kulturarekin lotutako ikerketak nazioarteko komunitate zientifikoarekin partekatzeak eta horren inguruko eztabaida intelektual bat sortu nahi izateak zenbait zailtasun ekartzen ditu: hasteko, testuingurua ondo ulertarazi behar da eta horrek ahalegin bat eskatzen du; eta gainera, neurri batean, benetan sakonak diren eztabaidak edukitzera iristea zailtzen du. Norbere mirak zabaldu eta nazioarteko ikuspegiak ezagutzea oso da beharrezkoa zientzian, baina, esate baterako, hizkuntzen baitako ñabardurei buruz eztabaidatzeko lagungarria da oinarri kultural berberak dauzkaten ikertzaileak biltzea.

Lan akademikoak euskaraz argitaratzeko edo ez argitaratzeko eman diren arrazoen atzean dauden ikertzaileen profilak aletzea ere interesgarria da. Lan akademikoak euskaraz ez argitaratzeko argudioak bereziki gehiago aipatu dituztenen profilei begiratzen badiegu, ikusten dugu, batetik, ez dutela euskaraz argitaratzen, eta, bestetik, honako ezaugarriak dauzkatela: euskaraz idazten ez dira eroso sentitzen edo oraindik kalitate altuko argitalpen gutxi daukate (ibilbide akademikoaren hasieran egon litezke) edo momentu honetan erretiroa hartzearen dauden ikertzaileak dira. Lan akademikoak euskaraz argitaratzearen aldeko argudioak bereziki gehiago aipatu dituztenek, batetik, euskaraz argitaratzen dute eta, bestetik, euskaraz idazten eroso sentitzen dira edo dagoeneko badira hainbat argitalpenen jabe (ez dira hasiberriak).

Profil horien ezaugarriei begira, hiru ideia nabarmendu nahi genituzke. Lehenengoak euskarak eremu akademikoan izan duen ibilbidea kontuan hartzea garrantzitsua da. Beste hizkuntza askorekin alderatuta, euskarak oso ibilbide laburra dauka esparru akademikoan, kontuan hartu euskararen aldaera estandarra sortu zela ere oraindik mende erdi bat besterik ez dela igaro (Boillos & Bereziartua, 2020). Horrek azal lezake, neurri batean, erretiroa hartzearen dauden ikertzaileek euskaraz argitaratzeko joerarik ez edukitzea.

Bigarrenkoz, ikertzaileok gure ibilbide akademikoan aurrera egiteko pairatzen dugun presioa jarri nahi genuke mahai gainean. Koller eta Thompson-i (2021) irakurri diegun bezala, argitalpen zientifikoaren bidez neurtzen da ikertzaileon kalitate zientifikoa eta horrek eragin zuzena dauka hasi ikertzaileon lanaren difusiotik eta gure lanaren truke jaso ditzakegun ordainsari osagarrietaraino. Nabarmendu diren erantzunak eman dituzten ikertzaileen profilak aztertuta, euskaraz ez argitaratzea bereziki argudiatu duten parte-hartzaileen artean daude kalitate altuko argitalpen gutxi dauzkatenak; eta euskaraz argitaratzearen aldeko argudioak eman dituztenen artean aurkitzen ditugu dagoeneko ibilbide akademikoa elikatzeke argitalpen batzuk dauzkatenak. Horrek guztiak ondokoa ondorioztatzea garrantzitsua da: ikertzaile gisa jasaten dugun presioak eragin egiten du gure lanak argitaratzeko zein hizkuntza erabili erabakitzean.

Hirugarrengez, bai alde batekoek eta bai bestekoek, bakoitzak bere argudioak aurkezteko erabili duen kontzeptua gogorarazi nahi dugu: erosotasuna. Euskaraz ez argitaratzeko arrazoiak ematen nabarmendu diren ikertzaileak ez dira eroso sentitzen euskaraz idazten; eta, alderantziz, euskaraz argitaratzeko arrazoiak ematen nabarmendu diren ikertzaileak eroso sentitzen dira euskaraz idazten. Zer da kausa eta zer ondorioa? Nobleagoak iruditu dakizkigukeen argudioak erabili dira, baina itzalxeagoan gelditu arren, pisuzkoa den elementua da hizkuntza-gaitasuna edo adierazkortasuna edukitzea. Horrek, berriro ere, bueltan-bueltan, hizkuntza gutxituen testuingurura gakartza.

Puntu honetara iritsita, komenigarria litzateke errealitate hori hizkuntza gutxitua duten beste komunitate akademiko batzuetako errealitateekin alderatzea. Hizkuntza horien begirada konplexuagoa izateak laguntza-sare bat sortzen lagun lezake, ezagutzen zabalkuntzan hizkuntza gutxituen erabilera sustatuko duten politikak sortzeko.

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Ammon, U. (2012). Linguistic inequality and its effects on participation in scientific discourse and on global knowledge accumulation – With a closer look at the problems of the second-rank language communities. *Applied Linguistic Review*, 3(2), 333-355. <https://doi.org/10.1515/applirev-2012-0016>
- Bereziartua, G., & Boillos, M.M. (2022). Euskara, hizkuntza akademikoa: laburpenen sistematizazioa helburu. *Euskera*, 67, 33-62. <https://doi.org/10.59866/eia.vi67.6>
- Björk, B-C., Roo, A., & Lauri, M. (2009). Scientific journal publishing: Yearly volume and open access availability. *Information Research*, 14. <https://informationr.net/ir/14-1/paper391.html>
- Block, D. (2018). Some thoughts on education and the discourse of global neoliberalism. *Language and Intercultural Communication*, 18(5). 576-584. <https://doi.org/10.1080/14708477.2018.1501851>
- Boillos, M.M., & Bereziartua, G. (2020). Euskara eremu zientifikoa: Giza eta Gizarte Zientziei buruzko aldizkarietako laburpenen azterketa kuantitatiboa (2010-2019). *Fontes Linguae Vasconum*, 129, 141-177. <https://doi.org/10.35462/flv129.5>
- Doerr, J.A.E. (2021). El monolingüismo es curable: contra una koiné global simplificada y de conquista científica. In B. Armstrong, J.A.E. Doerr, M. Presas & D. Udina (argtz.), *Traduir dins el calidoscopi de llengües* (21-68. or.). Universitat Autònoma de Barcelona. https://ddd.uab.cat/pub/lilibres/2021/250175/tradincallle_a2021.pdf
- Dołowy-Rybińska, N. (2021). Publishing policy: toward counterbalancing the inequalities in academia. *International Journal of the Sociology of Language*, 267-268, 99-104. <https://doi.org/10.1515/ijsl-2020-0090>
- Flowerdew, J. (2019). The linguistic disadvantage of scholars who write in English as an additional language: Myth or reality. *Language Teaching*, 52(2), 249-260. <https://doi.org/10.1017/S0261444819000041>
- Ganter, S.A., & Ortega, F. (2019) The invisibility of Latin American scholarship in European media and communication studies: challenges and opportunities of de-westernization and academic cosmopolitanism. *International Journal of Communication*, 13, 68-91. <https://ijoc.org/index.php/ijoc/article/view/8449/2523>

- Gardner, R., & Lambert, W. (1972). *Attitudes and Motivation in Second-Language Learning*. Newbury House.
- Federation of Finish Learned Societies (2019). *Helsinki Initiative on Multilingualism in Scholarly Communication*. <https://doi.org/10.6084/m9.figshare.7887059>
- Hyland, K. (2016). Academic publishing and the myth of linguistic injustice. *Journal of Second Language Writing, 31*, 58-69. <https://doi.org/10.1016/j.jslw.2016.01.005>
- Hynninen, N., & Kuteeva, M. (2017). 'Good' and 'acceptable' English in L2 research writing: Ideals and realities in history and computer science. *Journal of English for Academic Purposes, 30*, 53-65. <https://doi.org/10.1016/j.jeap.2017.10.009>
- Idoiaga I., & Belasko, M. (2019). Zer emozio pizten dizkigu hilerokoak? *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria, 108*, 79-94. <https://doi.org/10.26876/UZTARO.108.2019.4>
- Idoiaga, N., Eiguren, A., Urizar, M., & Belasko, M. (2022). Familia barneko sexuabusuen sekretua apurtzen: #MeTooInceste txioaren analisisa Iramuteq softwarearen bidez. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria, 122*, 101-119. <https://doi.org/10.26876/uztaro.122.2022.6>
- Klein, O., & Licata, L. (2003). When group representations serve social change: the speeches of Patrice Lumumba during the Congolese decolonization. *British Journal of Social Psychology, 42*, 571-593. <https://doi.org/10.1348/014466603322595284>
- Koller, E., & Thompson, M. (2021). The Representation of Indigenous Languages of Oceania in Academic Publications. *Publications, 9*(20), 1-13, <https://doi.org/10.3390/publications9020020>
- Kronberger, N., & Wagner, W. (2000). Keywords in context: Statistical analysis of text features. In W. Bauer eta G. Gaskell. (argtz.), *Qualitative researching with text, image and sound: A practical handbook* (299-317. or.). Sage.
- Legorburu, I., Idoiaga, N., Alonso, I., & Berasategi, N. (2023). Segurua al da eskolara bakarrik joatea? Generoaren eragina haurren mugikortasun autonomoan. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria, 124*, 5-22. <https://doi.org/10.26876/uztaro.124.2023.1>
- Ley Orgánica 2/2023, de 22 de marzo, del Sistema Universitario. *Boletín Oficial del Estado*, nº 70, de 23/03/2023. <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-2023-7500>
- Lillis, T., & Curry, M.J. (2010). *Academic Writing in a Global Context*. Routledge.
- Linkov, V., O'Doherty, K., Choi, E., & Han, G. (2021). Linguistic diversity index: A scientometric measure to enhance the relevance of small and minority group languages. *SAGE Open, 11*(2), 1-9. <https://doi.org/10.1177/21582440211009191>
- López-Navarro, I., Moreno, A.I., Quintanilla, M.Á., & Rey-Rocha, J. (2015). Why do I publish research articles in English instead of my own language? Differences in Spanish researchers' motivations across scientific domains. *Scientometrics, 103*(3), 939-976. <https://doi.org/10.1007/s11192-015-1570-1>
- Martín, L. (2021). Hegemonies and inequalities in academia. *International Journal of the Sociology of Language, 267-268*, 169-192. <https://doi.org/10.1515/ijsl-2020-0077>
- Mauranen, A., Hynninen, N., & Ranta, E. (2016). English as the academic lingua franca. In K. Hyland, & P. Shaw (argtz.), *The routledge handbook of English for academic purposes* (44-55. or.). Routledge.
- Navarro, F., Lillis, T., Donahue, T., Curry, M.J., Ávila, N., Gustafsson, M., Zavala, V., Lauría, D., Lukin, A., McKinney, C., Feng, H., & Motta-Roth, D. (2022). Rethinking English as a lingua franca in scientific-academic context. A position statement. *Journal of English for Research Publication Purposes, 3*(1), 143-153. <https://doi.org/10.1075/jerpp.21012.nav>
- Reinert, M. (1983). Une méthode de classification descendante hiérarchique: application à l'analyse lexicale par contexte. *Les cahiers de l'analyse des données, 8*(2), 187-198. http://www.numdam.org/item/CAD_1983__8_2_187_0/

- Reinert, M. (1990). Alceste, une méthode d'analyse des données textuelles. Application au texte 'Aurélia' de Gérard de Nerval. *Bulletin de Methodologie Sociologique*, 26(1), 25-54. <https://doi.org/10.1177/075910639002600103>
- Reinert, M. (1996). *Alceste user's manual (version 3.0)*. Image.
- Soler, J. (2021). Linguistic injustice in academic publishing in English. Limitations and ways forward in the debate. *Journal of English for Research Publication Purposes*, 2(2), 160-171. <https://doi.org/10.1075/jerpp.21002.sol>
- Suzina, A.C. (2021). English as lingua franca. Or the sterilisation of scientific work. *Media, Culture & Society*, 43(1), 171-179. <https://doi.org/10.1177/0163443720957906>
- Vila, X. (2021). The hegemonic position of English in the academic field. Between scientific diglossia and academic lingua franca. *European Journal of Language Policy* 13(1), <https://doi.org/10.3828/ejlp.2021.5>
- Vizeu, B., & Bousfield, A.B. (2009). Social representation, risk behaviours and AIDS. *The Spanish Journal of Psychology*, 12(2), 565-575. <https://doi.org/10.1017/s1138741600001931>